

## **BALMASEDAKO UDALA**

# **EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2022**

# AURKIBIDEA

1	SARRERA .....	3
2	PROZESUA.....	4
	2.1. Azterketa kuantitatiboa: .....	5
	2.2. Balorazio kualitatiboa, esparruz esparru. ....	6
3	2018-2022 EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA .....	8
	3.1. Helburu nagusia .....	8
	3.2. Esparruetako plangintza. ....	9
	1. Familia transmisioa.....	10
	2. Irakaskuntza.....	11
	3. Euskalduntzea.....	112
	4. Merkataritza .....	133
	5. Kirola.....	134
	6. Kulturgintza .....	15
4	ERANSKINAK .....	16

# 1 SARRERA

Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordearekin batera, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (hemendik aurrera ESEP) diseinatu zuen eta 2013an Legebiltzarrak onartu. ESEPEk datozen hamar urteetan garatuko den hizkuntza politikaren neurri proposamenak jasotzen ditu, eta Balmasedako Udalak ESEP izan du gidalerro nagusi udalerrri mailako plan estrategikoa definitzeko.

Balmasedako Udalak 2018-2022 epealdirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana diseinatzeko prozesua abiatu du, oinarrian herritarren eta hainbat eragileren aldetik euskararen bilakaeraren inguruko hausnarketa beharra eta norabide partekatu baten beharra dagoelarik. Prozesu horren baitan, euskarak Balmasedan bizi duen egoeraren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin ondoren, plana diseinatu da.

Hurrengo 5 urteetako lehentasunezko helburuak eta ekintzak jaso dira dokumentu honetan; horiez gain, aurreko plangintzalditik datozen ekintzak ere landuko dira, bai eta sor daitezkeen berriak ere (beti ere, ESEP egitasmoaren barruan, hasieran aipatu bezala).

Prozesu osoan zehar, ezinbestekoa izan da herriko eragileen parte-hartzea, eta EMUN Hizkuntza Zerbitzuaren eta Balmasedako Udaleko Euskara Zerbitzuaren arteko elkarlana.

Aurkezten dugun txostenak ondorengo atalak jasotzen ditu:

- Prozesuaren azalpenak: metodologia
- Oinarrizko azterketa
- 2018-2022 epealdiko plan estrategikoa: Landuko diren arloak, helburu nagusiak eta ekintzak
- Eranskinak

## 2 PROZESUA

Plangintza estrategikoa diseinatzeko prozesuak hiru fase nagusi hauek izan ditu:

### 1. LEHEN FASEA: OINARRIZKO AZTERKETA

Analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu dira, 2013-2017 euskara planaren azterketa egiteko. Azterketa Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin egin da.

Azterketa hori izan da diseinuaren abiapuntua.

### 2. BIGARREN FASEA: PARTE HARTZE PROZESUA

Parte hartze prozesuaren bidez herritar eta eragileen arteko hausnarketa estrategikoa bideratu da. Parte hartzeak bi helburu izan ditu:

- a. Gaur egungo euskararen diagnosi kualitatiboa egitea.
- b. Etorkizunerako proposamenak lantzea.

Hausnarketa estrategikoa izan da prozesu honen muina eta bertan esparruetako hainbat eragile, herritar, arduradun... elkarrekin bildu dira gune bakar batean. Guztira bi saio izan dira.

Saio bakoitzaren ondoren, ekarpen gehiago egiteko aukera ere izan da; Euskara Zerbitzuak saioetan parte hartu duten kideei eta eragile desberdinei saioetan landutakoa emailez bidali die, ekarpenak egiteko epea zabalduz.

### 3. HIRUGARREN FASEA: PLANAREN DEFINIZIOA

Azkenik, plana osatu da. Atazak definitzeko irizpide nagusia izan da Eusko Jaurlaritzak eragin eremuko Herri administrazioetan garatzeko diseinatu duen Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin (ESEP) bateragarria izatea. Beraz, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren egitura du planak.



Irudia: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana diseinatzeko prozesua.

# OINARRIZKO AZTERKETA

Lehenik eta behin, Balmasedan euskara gaitasuna eta bilakaeraren datu kuantitatiboak jaso eta 2013-2017ko planaren balorazio kualitatiboa egin dugu. Datozen urteetarako lan ildo nagusiak zehazteko beharrezkoa izan da hausnarketa egitea, batetik, egoera soziolinguistikoaren jabe egiteko, eta, bestetik, hobetzeko alderdiak zeintzuk diren identifikatu eta eztabaidatzeko.

Azterketa atal hauetan egituratu da:

## 3.1. Azterketa kuantitatiboa:

Azterketa egiteko Soziolinguistika Klusterrak Euskararen Datu Basean jasotako **2011ko datuak** erabili ditugu. Hauek izan dira aztertu ditugunak:

Euskara gaitasuna eta euskara gaitasunaren bilakaera.

Euskara gaitasuna adinaren arabera eta bilakaera.

Lehen hizkuntza eta lehen hizkuntzaren bilakaera.

Etxeko hizkuntzaren bilakaera.

Irakaskuntzako hizkuntza ereduak, 2012/2013 ikasturtea.

Hizkuntza ereduaren bilakaera.

Datuok grafikoetan jarri ditugu, azken urteotan euskarak Balmasedan izan duen bilakaera irudi bidez ikusi ahal izateko. **Ikusi 1 eranskina.**

### Datu kuantitatiboak aztertuta, hauxe da egin dugun analisia:

- Gaur egun, Balmasedako hiritarren erdia **euskaraz ulertzeko gai da** (%49,5); eta horren erdia, **euskaraz komunikatzeko gai da** (%22,2). Datuok argi esaten digute euskararen gaitasunak nabarmen egin duela gora Balmasedan 1986tik hona, orduan, ia inork ez baitzekien euskaraz.

Ikusi grafikoak: "Hizkuntza-gaitasuna. Balmaseda, 2011(%)" eta "Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. Balmaseda, 1986 >> 2011 (%)".

- Hizkuntzaren gaitasunari **adinaren arabera** erreparatzen badiogu, hauxe da datuek esaten digutena:

Balmasedako **haur gehienak euskaldunak** dira.

15-34 urtekoen artean % **78 euskaraz ulertzeko gai da**.

Eta, horretaz gain, horien arteko % **41 euskaraz komunikatzeko gai da**.

Ikusi grafikoak: "Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Balmaseda, 2011(%)" eta "Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera. Balmaseda, 1986 >> 2011 (%)".

- Lehen hizkuntzari eta etxeko hizkuntzari dagokienez, datuak ez dira asko aldatu azken urteotan: erdara da Balmasedako hiritar gehienek lehen hizkuntza. Gaur egun, etxeko euskararen erabilera datua oso baxua da.

Ikusi grafikoak: “Lehen hizkuntza. Balmaseda, 2011(%)”, “Lehen hizkuntzaren bilakaera. Balmaseda, 1986 >> 2011 (%)” eta “Etxeko hizkuntzaren bilakaera. Balmaseda, 1991 >> 2011 (%)”.

- Eta azkenik, irakaskuntzako hizkuntza ereduari dagokionez, D ereduak nabarmen egin du gora (2012/2013 ikasturteko datuak dira), nahiz eta oraindik bigarren hezkuntzako eta batxilergoko gazte guztiek ez duten D ereduari ikasten. Esan beharra dago lanbide heziketa guztiz erdalduna dela oraindik.

Ikusi grafikoa: “Hizkuntza ereduaren bilakaera”.

Hortaz, Balmasedan euskara gehiago erabiltzeko aukerak nabarmen zabaldu dira. Hau D ereduak izan duen gorakadaren ondorioz gertatu da, bereziki. Hauek dira zabaldu diren aukerak:

Urte gutxitan Balmasedako guraso asko euskaldunak izango dira.  
Gaur egun, Balmasedako haur guztiek euskal ereduari ikasten dute.  
Gero eta gazte gehiagok ikasten du D ereduari.

### **3.2. Balorazio kualitatiboa, esparruz esparru.**

Esparru bakoitzeko ekintza nagusi eta esanguratsuenak bildu ditugu, eta horien sintesia jaso dugu txostenean. Balorazioa herritar eta esparru desberdinetako eragileen artean egin da, “Blue Ocean” dinamika erabilia. Dinamika honen bidez, azken 4-5 urteetan egindakotik zer mantendu/indartu, zer gutxitu/murriztu, zer kendu eta zer sortu identifikatu dira. Ondorengo esparruak landu ditugu (**ikusi 2. eranskina**):

Familia transmisioa.

Irakaskuntza.

Euskalduntzea eta prestakuntza.

Arlo sozioekonomikoa (merkataritza).

Aisia eta Kirola.

Kulturgintza.

**Familia transmisioa:** Euskara ikasteak euskararen ezagutza bermatzen du, baina ez du erabilera bermatzen. Eta badakigu erabileran pisu handia duena familia-hizkuntza dela, eta, noski, familiaren harreman-sareko hizkuntzak. Beraz, euskara berrindartu eta erabilera handitzeko familia barruko hizkuntza transmisioa oinarritzko bitartekoa da.

Balmasedan, euskara dakiten gurasoek euren seme-alabei euskara transmititzeak daukan garrantziaz jabetzeko, hainbat ekintza egin eta bideratu dira azken urteotan, eta aurrera begira ere ekintza hauek mantendu, indartu edota berriak sortzeko beharra ikusi da.

**Irakaskuntza:** Eskolari dagokionez, D ereduaren gorakadak ez du etenik izan. Euskaldunak sortzeko eta euskararen erabilera bultzatzeko ezinbesteko oinarria da eskola, baina ezinbestez aktibatu behar dena familia da. Hortik etorriko da eskolan ikasitako euskararen erabilera areagotzea.

Beraz, atal honetan ere, hainbat ekintza antolatu eta bideratu dituzte Balmasedako eskoletan euskararekiko motibazioa handitu eta ikasle eta gurasoen arteko harremanetan euskararen erabilera handitzeko helburuarekin. Hurrengo urteetan ere lantzen jarraitu beharreko esparrua izango da.

**Euskalduntzea:** Ez da berria edozein hizkuntzaren berreskurapen prozesuan helduen parte-hartzeak duen garrantzia. Hurrek eskolan euskaraz ikasi arren, gero beren ingurunean erdara bada nagusi, beraien artean ere erdara nagusituko da. Zenbaitetan pertsona helduen artean eragiteak, haurrengan ere eragina du; akaso batzuek euskaraz ikasteko aukerarik izan ez badute ere, etorkizunean beren seme-alaben artean euskara ikastea ahalbideratu ahal izatea eskaintzen da. Beraz, garrantzitsua bakarrik ez, euskalduntzea erabakiorra gertatuko da euskararen bilakaeran.

Hainbat ekimen burutu ditu azken urteotan Balmasedako Euskara Zerbitzuak helduek euskara ikasi eta erabiltzeko guneak sortu eta ekintza desberdinak bideratuz: berbalagun, mintzodromoa,... Hurrengo urteetan, orain arte egindakoarekin jarraitu eta Balmasedako edozein herritarri euskalduntzeko erraztasunak eta laguntzak handitzea beharrezkotzat jo da.

**Merkataritza:** Herriko merkataritza-establezimenduek (dendak, tabernak, jatetxeak,...) gizarte harremanak garatzeko aukera ezin hobea eskaintzen diete bezeroei; euskaldundu beharreko esparru gakoa da, beraz, merkataritza.

Azken urteotan ekintza dezente bideratu dira Balmasedan esparru hau euskaldundu nahian, baina emaitzak apalak izan dira. Halere, hurrengo urteetan egindakoa mantendu/indartu eta ekintza berriak sortzeko beharra ikusi da, batez ere, paisaia linguistikoa euskalduntzeko.

**Aisia eta kirola:** Oso garrantzitsua da kirolean eta horrelako jardueretan haurrak euskaraz ohitzea, gero haien kabuz jolasten aritzen direnean askotan antzeko jarduerak egiten dituztelako. Lehendik euskaraz egitera ohitu badira, gero errazagoa izango da jarduera hori egiten trebatu diren hizkuntzan aritzea.

Eskolaz kanpoko Balmasedako kirol esparruan bideratu dira hainbat ekintza azken urteotan, euskararen erabilera handitu nahian. Baina, oraindik ere, euskararen erabilera urria dela ikusita aurrerantzean ere landu beharreko esparrua da, ezinbestean.

**Kulturgintza:** Ezin da euskararen normalizazioan eragin kultura erdalduna bada. Euskal kulturak berebiziko garrantzia dauka euskararen transmisioan eta erabileran.

Euskal kulturaren kontsumoa handitzeko ekimenak bideratu dira Balmasedan azken urteotan. Orain arte egindakoa mantendu eta indartu beharra ikusi da, baina datorren urteotan haur eta gazteei zuzendutako eskaintza kulturaletan eragitea izango da gakoa.

# 3 2018-2022 EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

Orain arte egindakotik zein ekintza mantendu/indartu, zeintzuk kendu eta zein ekintza sortu beharko liratekeen identifikatu dira. Baina, ideia eta asmo onak definitzea ez da nahikoa izaten egitasmoetan arrakasta lortzeko. Esparru bakoitzean zein helburu eta ekintza garatuko ditugun jakitearekin bat, beharrezko zaigu lan egiteko oinarri egokiak jartzea, hau da, ekintzak nola garatuko ditugun adostea.

Beraz, “Blue Ocean” ariketa egin ondoren, 2018-2022 epealdian esparru bakoitzean lortu beharreko **helburu nagusiak** adostu dituzte guztien artean, eta baita helburu horiek lortzeko **ekintzak** ere.

## 3.1. HELBURU NAGUSIA

Parte hartze prozesuan, euskararen egoera etorkizunean irudikatu da. Jasotako iritzi eta proposamenekin planaren helburu nagusia definitu dugu. Helburu nagusia ondorengo hiru zutoinek osatzen dute:

- Familia barruko hizkuntza erabilera indartzeak du lehentasuna, beraz, familia giroan euskarazko jarduerekin gozatzeko egoerak eta ekintzak sustatuko dira.
- Euskararen erabilera bermatzea beharrezkotzat jo da 0-16 urte bitarteko gazteen aisialdian, guraso elkarteak edota herriko elkarteek antolatzen dituzten jarduerak, kirolean zein kultur arloan.
- Herrian euskaraz egiteko guneak identifikatzera bideratuko dira ahaleginak, eta, zehazki, merkataritzan hizkuntza paisaia euskalduntzera joko da.

Euskararen biziberritzean euskaraz egiteko guneak eta uneak indartzeak berebiziko garrantzia du, zenbat eta erabilera aukera gehiago izan, orduan eta hitzun trebeagoak lortzen direlako. Haur, gazte eta helduek euskaraz eroso eta natural sentitzeko aldeko ingurunea dutela sumatu behar dute, eta, horretarako, sozializazioa euskaraz ere izatea beharrezko da.

Sozializazioan hiru oinarriko elementuek hartzen dute parte: eskolak, komunitateak eta familiak. Eta hirurak elkarlotuta daude, beraz, hiru horietan eragiteak du lehentasuna.

Eskolan helburu komunikatiboa areagotzen duten jarduerak sendotzea gomendatzen dugu, “Gu ere bertotan”, antzerki, aldizkari eta eite horretako ekintzak, besteak beste. Eskolak, aldi berean, komunitatean egiten dena indartu behar du, identitatea landu behar du. Hezkuntza Saila izango da esparru honen gidalerroa.

Bestalde, familia gakoa da hizkuntza eskuratzerakoan. Familia, ahal den neurrian, murgiltze linguistikoaren eremu bihurtu behar da euskaraz eginez, edota, euskarako kultur eskaintza etxekoan eskura jartzen.

Eta, azkenik, gertuko komunitatea (lagunak, zerbitzuak, elkarteak, auzoa...) euskaraz izan dadin saiakera sendoa egin behar da, beraz, komunitatearengandik gertu egon eta komunitatea norabide horretan jarriko duten ekintzak eta diskurtsoak lantzea ikusten dugu beharrezko hurrengo plangintzaldi estrategikoan. Aisialdia euskalduntzeko elkarteekin harreman iraunkorra izatea gakoa izango da, euskaraz egiteko apustua barnera dezaten eta neurriak har ditzaten norabide horretan.



## 3.2. ESPARRUETAKO PLANGINTZA

Azterketa oinarri hartuta, lehentasunezko esparru hauek landu dira hausnarketa estrategikoan parte hartu dutenekin batera:

- Familia transmisioa
- Irakaskuntza
- Euskalduntzea
- Merkataritza
- Kirola
- Kulturgintza

## I. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

---

### Helburuak:

Gurasoetako bat euskalduna denean seme-alabekin euskaraz egitea.

Guraso euskaldunak aisialdian euskara erabiltzeko esparruak sortzea.

Bikote euskaldunetan euskaraz egiteko ohitura handitzea (euskaraz egin nahi baina euskaraz egiteko ohiturarik ez duten bikoteetan eragin).

### Ekintzak

a) Zinea familian antolatu (Kultura Sailak)

Euskarazko kontsumoa bultzatzeko bonoak, beherapenak... egin, beti ere, guraso eta haurrak elkarrekin zintera joaten badira.

b) Guraso eta hurrek etxean euskaraz egiteko konpromisoak landu: elkarrekin euskaraz irakurtzeko testuak erabili.

Eskolarekin, guraso elkarteekin eta liburutegiarekin elkarlanean haur eta gurasoek elkarrekin euskaraz irakurtzeko ekimena abian jarri.

c) Haurrentzako ludotekak antolatzen jarraitu.

d) *Gurasolagun* egitasmoaren barruan, urtean bi-hiru irteera antolatu familian euskaraz egiteko eta mendiaz gozatzeko:

*Familiak martxan!* Irteera hauen helburua familia esparruan euskara erabiltzeko gune bat sortzea izango da.

e) Sentsibilizazio kanpaineekin jarraitu.

Gurasoei hurrekin jolasteko banatzen zaien materiala eraginkorragoa izateko formulak pentsatu, esate baterako, erakusketak eta tailer laburrak antolatuz, irakasle-gurasoen arteko bileretan gaia landuz...

f) Euskarazko Newsletter-a gainerako eskoletan ere sortzeko aukerak zabaldu.

### Estrategia

Guraso elkarteekin lanketa zehatza egin hizkuntza irizpideak definitzeko

### Eragileak

Guraso elkarteak, udala, herriko elkarteak eta eskolak

### Garrantzia

Handia

---

## II. IRAKASKUNTZA

---

### Helburuak:

Euskara Zerbitzuak guraso elkarteekin haurrentzat antolatzen dituzten ekintza guztiak euskaraz izatea.  
Balmasedan hezkuntza eredu bakarra D eredua izatea.

---

### Ekintzak

- a) Guraso elkarteek egiten dituzten komunikazio guztiak euskaraz ere izateko harremanak lantzea eta baliabideak eskaintzea (bazkideei, herritarrei, haurrei, udalari...): oharrak, kartelak, aurkezpenak...
- b) Gurasoek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izatea, bereziki kirol jarduerak.  
Guraso elkarteak, kirol klubak eta eskolak elkarlanean aritu behar dira bereziki eskola kirola euskaraz izan dadin.
  - Ikastetxean eguerdian antolatzen dituzten ekintzak euskaraz direla bermatzeko neurriak adostu guraso elkarteekin.
  - Guraso elkarteek, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean, euskararen erabilera handitzeko konpromisoak landu.
- c) Gurasoei euskarazko informazioa zabaldu, seme-alabek eskolan egiten dituzten hainbat ekimenen berri emanez.  
Gaur egun ikastetxe bakar batean egiten den "Newsletter"-a gainerako ikastetxeetara zabaldu.
- d) Ikastetxe ezberdinen arteko harremanak sendotu, euskara ardatz hartuta: "Euskararen Jaia Eskolan" eta antzekoak proposatu Hezkuntza lan-taldean. Era berean, ikastetxe bateko ikasle nagusiagoek besteetako txikiagoei ipuinak, istorioak... euskaraz kontatu, euren artean elkarri eragiteko; txikienek erreferente euskaldunak izateko, eta nagusiagoen motibazioa indartzeko.
- e) Gaur egun egiten diren ekimenak aurrerantzean ere mantendu: "Gu ere bertsoan", motibazio-sentsibilizazio saioak, Gaztezulo eta Irrien lagunak, gazte hizkera lantzeko tailerrak, antzezlanak, euskal astea...

### Estrategia

Guraso elkarteak Hezkuntza lan-aldeko batzordeetara gonbidatu

### Eragileak

Guraso elkarteak, eskolak, udala

### Garrantzia

Handia

---

### III. EUSKALDUNTZEA

---

#### **Helburuak:**

Euskalduntzea doakoa izatea.

Euskarari prestigioa ematea, herrira begira egiten diren komunikazio guztietan euskararen presentzia bermatuta (idatzizkoan nahiz ahozkoan: kartelak, lehen hitza euskaraz...).

#### **Ekintzak**

- a) Euskalduntzea doakoa izateko proposamena landu.
- b) Berbalagun egitasmoa zabaldu, eta Balmasedan euskaraz egin daitezkeen guneak identifikatu (zerbitzu publikoak eta pribatuak, dendak, tabernak, pertsonak...), euskaraz dakiten eta ikasten ari diren pertsonak euskaraz egiteko espazioak irabaz ditzaten.
- c) Euskaraz izango diren tailer, ikastaro... interesgarriak antolatu.
- d) Herriko elkarte, talde, norbanakoekin... sarea sortu (argazki taldea, etab ...), eta euskarazko eskaintza interesgarria antolatzeke elkarlanean aritu.
- e) Herritarrei euskalduntzeko bideak ezagutarazi.
- f) Udal-liburutegian eguneroko euskarazko prentsaren presentzia bermatu

#### **Estrategiak**

Diru-laguntza sistema indartzen jarraitu

Balmasedan euskaraz egin daitezkeen guneak identifikatu

#### **Eragileak**

Udala, euskaltegiak

#### **Garrantzia**

Handia

---

## IV. MERKATARITZA

---

### **Helburua:**

Merkataritza gune eta establezimenduen hizkuntza paisaia euskalduntzea.

---

### **Ekintzak**

- a) Euskara bultzatzeko merkatariekin orain arte egin diren kanpainen egokitasuna aztertu.  
Euskal Herriko beste esperientzia batzuk ezagutu.
- b) Udalak hizkuntza paisaia euskalduntzeko kanpaina diseinatu eta egin.
- c) Ordenantzak aztertu eta merkataritzarako hizkuntza politika sustatu.
- d) Euskaraz dakiten merkatarien zerrenda egin eta euskaraz komunikatzeko aukera dagoenean herritarrei adierazi.
- e) Tabernetan euskal musika sustatu.

### **Estrategia**

Komunikazio plana

### **Eragileak**

Merkatarien elkarteak, udala

### **Garrantzia**

Ertaina

---

## V. KIROLA

---

### Helburua:

Eskola kirola (saski baloia, futbola, esku pilota) eta Udalak 0tik 16 urtera bitarteko haur eta gazteei eskaintzen dien kirola (igeriketa, ballet-a...) %100 euskaraz izatea.

---

### Ekintzak

- a) Saskibaloia, futbola, txirrindularitza eta eskupilota taldeekin euskararen erabilera handitzeko mikroplangintzak edo hitzarmenak bideratu.
- b) Futboleant, saskibaloian, txirrindularitzan eta eskupilotan, gazteen kategorian, euskararaz aritzeko konpromisoak landu, era mailakatuan eta hitzarmen bidez. Gurasoekin komunikazioak elebitan izateko aholkularitza eskaini.

Eskoletako zuzendaritza taldeei batzordearen kirol arloko kezka helarazi, euren plangintzetan eta erabakietan beharrezko neurriak hartzeko.

- c) Kirolean erreferente diren pertsona euskaldunak ekarri.
- d) Futboleko, saskibaloiko eta eskupikotako alineazioak, hamaikakoak, euskaraz azaldu.

### Estrategia

Urtero kirol talde bakoitzarekin neurrirako konpromisoak adostu, bideratu eta jarraipena egin

### Eragileak

Kirol elkarteak, guraso elkarteak, udala...

### Garrantzia

Handia

---

## VI. KULTURGINTZA

---

### Helburuak:

Udalak antolatzen dituen haur eta gazteentzako zuzeneko ikuskizunak (0-16 urte bitartekoentzat) euskaraz izatea.

Udalak nagusientzako antolatzen dituen zuzeneko ikuskizunen portzentaje bat euskaraz izatea bermatzea.

---

### Ekintzak

- a) Euskal azoka kulturala (abendukoa) mantendu.  
Postu guztietan idatzizko mezuak euskaraz jarri.  
Postu euskaldunen presentzia areagotu (AEK, Ikastola, Institutua, gurasoak, artisau euskaldunak...)  
Azokaren bidez, euskal kulturaren erreferente bat eskaini.
- b) Erdi Aroko azokan haurrei zuzendutako ikuskizunen %100 euskaraz izateko irizpideak txertatzea kontratazio oinarrietan, nagusiei eskainitakoa ere kontutan hartuz.  
Jai batzordearekin eta Kultura sailaren hitz egin eta irizpideak adostu.
- c) Jaietako barraketako musikaren %50 euskalduna jarri, eta prezio guztiak ele bitan jarri.  
Barraketakoei hizkuntza-irizpideak ezarri (musika eta hizkuntza paisaia).
- d) Gaur egun egiten diren ekitaldiak aurrerantzean ere mantendu: Olentzero, Ekhi gaua, Agate Deuna, Euskal ezkontza.
- e) Errege magoen ekitaldian euskararen presentzia eta erabilera handitu.
- f) Gabonetako parkean begirale euskaldunak izatea bermatu.
- g) Garagardo festan hizkuntza paisaia euskaldundu.

---

### Estrategia

Komunikazio iraunkorra herriko elkarteekin eta baliabideen eskaintza

---

### Eragileak

Kultur elkarteak, jai batzordea, udala

---

### Garrantzia

Handia


---

# 4 ERANSKINAK


1. erankina: **Azterketa kuantitatiboa**

**Euskara gaitasuna eta euskara gaitasunaren bilakaera**

Hizkuntza-gaitasuna. Balmaseda, 2011 (%)




Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. Balmaseda, 1986 >> 2011 (%)






## Euskara gaitasuna adinaren arabera eta bilakaera


Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Balmaseda, 2011 (%)




Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adinaren arabera. Balmaseda, 1986 >> 2011



## Lehen hizkuntza eta lehen hizkuntzaren bilakaera




## Etxeko hizkuntzaren bilakaera




### Irakaskuntzako hizkuntza ereduak, 2012/2013 ikasturtea

A ereduak	B ereduak	D ereduak	X-G ereduak
<b>% 10,8</b>	<b>% 1,9</b>	<b>% 87,4</b>	<b>% 0,0</b>



### Hizkuntza eredu en bilakaera



2. eranskina: **Balorazio kualitatiboa, esparruz esparru:**

Aipatu bezala, "Blue Ocean" dinamika erabili dugu esparru desberdinetako balorazioa egiteko. Hona hemen:

<b>FAMILIA TRANSMISIOA</b>	
<b>MANTENDU/INDARTU</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Sentsibilizazio kanpainak eta gurasoei banatzen zaien materiala mantendu.</li><li>- Familiak elkarrekin egiteko euskarazko ekimenak indartu.</li></ul>	<b>MURRIZTU/GUTXITU</b>
<b>SORTU</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Gurasoei banatzen zaien materiala eraginkorra izan dadin (gurasoek materiala erabil dezaten, kankak, jolasak...) estrategia bilatu.</li><li>- "Newsletter"-en bidez gurasoei seme-alabek egiten dituzten ekintzen berri euskaraz ematea.</li><li>- Gurasoen konpromisoa sustatzeko estrategiak sortu: gurasolagun, eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izatea, zinea euskaraz...</li><li>- Gurasoentzako ikastaro/ekintza interesgarriak antolatu (kanta taldea, mendi taldea... ) guraso euskaldunen sare bat sortzeko asmoz.</li></ul>	<b>EZABATU</b>

<b>IRAKASKUNTZA</b>	
<p><b>MANTENDU/INDARTU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Orain arte egin diren ekimenak mantendu: “Gu ere bertsoan” egitasmoa, motibazio-sentsibilizazio saioak, Gaztezulo eta Irrien lagunak aldizkarien harpidetza eta lanketa, gazte hizkera lantzeko tailerrak, antzezlanak, euskal astea, ihauteriak, filmak...</li> <li>- Haur eta gazteek eskolan egiten dutenaren inguruko euskarazko informazioa zabaltzeko ikastetxe batean egiten den “Newsletter”-aren erabilera beste ikastetxeetara zabaltzea.</li> </ul>	<p><b>MURRIZTU/GUTXITU</b></p>
<p><b>SORTU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza Sailak elebitasuna bermatzea irakaskuntza publikoan, prozesu osoan (D eredu).</li> <li>- Guraso elkarteek eguerdientarako euskaraz izango diren tailerrak/ikastaroak antolatzea.</li> <li>- Gurasoak euskararen garrantziaz jabetzea eta eskaerak egiteko aktibatzea (begirale euskaldunak...).</li> <li>- Ikasle nagusiagoek txikiagoei euskaraz ipuinak, istorioak... kontatzea, haien arteko elkarreragina sortuz, eta txikienek erreferente euskaldunak izateko.</li> </ul>	<p><b>EZABATU</b></p>

<b>EUSKALDUNTZEA</b>	
<p><b>MANTENDU/INDARTU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Orain arte egindakoak mantendu edo indartu: berbalaguna, mintzodromoa, bertso eskola, matrikulazio kanpainak...</li> </ul>	<p><b>MURRIZTU/GUTXITU</b></p>
<p><b>SORTU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Doakotasunerako bidea hartu, diru-laguntzak indartuz.</li> <li>- Euskalduntzeko bideak ezagutarazi (oraindik askok ez gaituzte ezagutzen).</li> <li>- Euskararen prestigioa eman.</li> <li>- Euskaraz soilik izango diren guneak sortu. ARNASGUNEAK.</li> <li>- Euskalduntzearen beharra sortu. Euskarari lehentasuna eman.</li> </ul>	<p><b>EZABATU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen inguruko mitoak apurtu: "zaila da", "ingelesa garrantzitsuagoa da"...</li> </ul>



<b>MERKATARITZA</b>	
<p><b>MANTENDU/INDARTU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Orain arte erabili diren komunikazio moduak aztertu.</li> <li>- Jaietako barraketan euskal musika handitzeko eta hizkuntza paisaian euskararen presentzia handitzeko neurriak hartu.</li> </ul>	<p><b>MURRIZTU/GUTXITU</b></p>
<p><b>SORTU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen presentzia areagotu negozioetan, euskaraz komunikatzeko aukera dagoenean adieraziz.</li> <li>- Kartel publikoetan euskararen aldeko apustua egin.</li> <li>- Ordenantzak aztertu eta merkataritzako hizkuntza politikarekin loturak ezarri.</li> <li>- Euskal musika sustatu tabernetan.</li> <li>- Euskaraz dakiten merkatarien zerrenda egin.</li> </ul>	<p><b>EZABATU</b></p>

<b>AISIA ETA KIROLA</b>	
<p><b>MANTENDU/INDARTU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirolean erreferente diren pertsona euskaldunak ekarri.</li> </ul>	<p><b>MURRIZTU/GUTXITU</b></p>
<p><b>SORTU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Antzerki talde bat dagoenez, aisian edota ekintzetan euskaraz egitea lortu behar dugu. Talde bakar baten gauza izan beharrean, orokortu egin behar da, beste elkarteetara ere zabaldu behar dugu.</li> <li>- Futbol zelaietan euskarazko musika jarri, bozgorailuetako mezueta euskara sartu.</li> <li>- Alienazioak, hamaikakoak, euskara hutsean azaldu.</li> <li>- Haur eta gazteen aisialdian euskara nagusi izatea lortu.</li> <li>- Diru-laguntzak eskaini begirale (kirol, aisialdi...) euskaldunak kontratatzeagatik. Berehalako aldaketa izan beharrean begirale berriei begira aplikatu.</li> <li>- Guraso elkarteekin landu gaia.</li> </ul>	<p><b>EZABATU</b></p>

<b>KULTURGINTZA</b>	
<p><b>MANTENDU/INDARTU</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal produktuen katalogoa mantendu behar da? AMPAko iritzia galdetu ezer egin aurretik, kontsumoa neurtu behar da...</li> <li>- Abenduko azoka kulturala, euskal azoka kulturala. Erakunde ezberdinen parte hartzea bilatu.</li> <li>- “Pirritx eta Porrotx” ekarri. Mugimendua sortu: Ikastola, eskola, AMPA...</li> </ul>	<p><b>MURRIZTU/GUTXITU</b></p>
<p><b>SORTU</b></p>	<p><b>EZABATU</b></p>